

## *Behauze*

Aurkibidea

### **Udalerria: Behauze**

#### **Sarrera**



Behauze Amikuze eskualdean kokatzen den Nafarroa Behereko udalerrria da. Honako udalerrriak ditu mugakide: Martxueta iparraldean; Labetze-Bizkai ipar-ekialdean; Lüküze-Altzümarta ekialdean; Amоротze-Zokotze mendebaldean; eta Bithiriña hegoaldean. (Argazkia [www.eke.eus](http://www.eke.eus) webgunetik hartua)

- **Biztanleak:** 242
- **Euskaldunak:** %12,18

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **31**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **31**

## Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

## Hizlariak

### Jeanne Alchourroun (1921-2015)



Jeanne Alchourroun Armendaritzen sortu zen 1921ean, baina umea zela familia Behauzera joan zen bizitzera eta gazte-denbora bertan pasatu zuen. Behauzen ibili zen eskolan. 15 urte zituela ezagutu zuen bere senargaia. Bi urtez soldadu egon eta etxera itzuli zenean, gerra sortu zen eta berriz joan beharra izan zuen senargaiak. Hori ikusirik, ezkontzea erabaki zuten eta 1940an ezkondu ziren. Hiru haur ukan zituzten. 1950ean Arberatzera joan ziren bizitzera. Etxetiar (maizter) egon ziren bizi guzian, 1983an Arberatzeko etxea erosi arte.

### Marie-Jeanne Auchoberry (1934)



Marie-Jeanne Auchoberry Behauzen sortu zen 1934an. Hamaika urtera arte ibili zen eskolan. 12 urtetan Bordeleko ttantta (izeba) serora baten etxera joan zen, baina ez zuen bokaziorik eta hiru urteren buruan etxera itzuli zen. Hamabost urtetan, sasoi egiten hasi zen Salieseko seroren etxean. Neguan, aldiz, josten eta sukaldaritza ikasten ibili zen Donapaleuko "école ménagère" ikastetxean, bai eta ere Behauzeko ttantta dendari baten etxean. Ondotik, bederatzi urtez neskato (sehi) egon zen Parisen. Ezkondu eta gero, senar-emazteek Donapaleuko ostatu baten kudeaketa hartu zuten. Hiru haur ukan zituzten. Marie-Jeanne "Le Foirail" ostatuko sukaldaria izan da bere bizi guzian.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

## **1. Behauzeko emazte baten gaztetasuna 12-18 urte artean (1940 hamarkadan) (BEH-001/001)**

Marie-Jeanne Auchoberry-k orroitzapen guti du haur denboraz. Hamaika urteak arte eskolan ibili da. 12 urtetan aldiz Bordeleko Ttantta serora baten etxera joan zen, harek ilobak biltzen zituen seroratzeko. Marie-Jeannek ez zuen bokaziorik eta hiru urteren buruan etxera itzuli zen. Hamabost urtetan, sasoi egiten hasi zen Salieseko seroren etxean. Neguan aldiz, josten eta sukaldaritza ikasten ibili zen Donapaleuko « école ménagère » ikastetxean bai eta ere Behauzeko Ttantta dendari baten etxean.

## **2. Parisen sehi (1952-1961) (BEH-001/002)**

Hemezortzi urtetan, beste bi neska lagunekin, abiatu ziren sehi Parisera. Autobusa Baionaraino, han gaua pasatu eta biharamunean treinez Parisera heldu ziren. Lau urtez etxekandere berarentzat Ganbara egiten ari izan zen. Gero, lekuz kanbiaturik, bost urte kozinan ari izan zen.

## **3. Aste buruak Pariseko Euskal Etxean. (BEH-001/003)**

Aste buruetan, euskaldunak Pariseko Euskal Etxean biltzen ziren kartetan aritzeko edo dantzaldietan, hots giro onean!

## **4. Ostatu baten eguneroko bizia Donapaleun (1960 hamarkadan) (BEH-001/004)**

Landibartar batekin ezkondurik, Donapaleuko merkatu plazako ostatu batean hasi ziren lanean. Garai hartan auto guti zelakoan, Donapaleuko enpresetan lanean ari ziren langileek astea ostatuan iragaiten zuten. Elgar ongi ezagutzen zuten eta momentu goxoak ere iragaiten zituzten. Mila bederatzia ehun eta hiruetan hogeita hamabostean, senarra galdu zuen eritasunez, haur gehienak hamabi urte zituelarik. Hala ere ostatuan segitu du, langilearekin.

## **5. Jatetxeko erosketak (BEH-001/005)**

Donapaleuko merkatuan, epizerian edo harategian egiten zituzten erosketa handienak. Batzuetan, inguruko laborarieri ere hartzen zituzten ahate gibelak edo arroltzeak.

## **6. Ostiraleko merkatua Donapaleun (BEH-001/006)**

Hasieran, hamabost egunetarik Donapaleun eta ondoko ostiralean Garruzen. Kabala tratulant eta laborariek berex jaten zuten ostatuan. Jende frango ibiltzen zen orduan merkatuan. Kabalen sal-erospenak ostatuko borta aitzinean egiten ziren. Merkatu estalian aldiz eta behereko zubi ondoan, laborariek ahate gibelak, barazkiak edo pualleria saltzen zituzten.

## **7. Eguberri eta Bazkoko feriak (BEH-001/007)**

Eguberriko feira zen handiena, Eguberri egunean hasten zena. Egun hortan, kabala negozioa Elizaren inguruetan egiten zen. Aldiz, usaiako merkatu plazan plantatzen ziren laborantzako tresneria saltzaileak. Ainitz jende erakartzen zuen feira honek. Ostatuak ere ongi ari ziren lanea. Zenbait urteren buruan, feira desagertu zen. Xuxen noiz eta zer arrazoinen gatik ez da oroit Marie-Jeanne. Haatik damu izan zuen, egun ederra baitzen ere ostatuentzat.

## **8. Besta egun aipagarrienak Donapaleun (BEH-001/008)**

Gazte denboran, Eguberriko feirien karietara eta ihauteriz egiten ziren dantzaldiak. Donapaleuko bestak aldiz betidanik uztailan ospatu dira. Marie-Jeannek ez du parada handirik ukan besta egiteko. Gazte denboran Parisen baitzen eta itzultzean berehala hasi baitzen lanean. Hala ere orroit da besta gotorrak egiten zirela. Ostatuan, astelehena zen egunik goxoena.

## **9. Normak eta kontrolak ostatueta (1970 hamarkadan) (BEH-001/009)**

Gastu batzu egin behar izan zituzten 1975-80 urteetan sukaldea normetan ezartzeko. Kontrola zorrotzak ere ukaiten zituzten. Marie-Jeanne oroitzen da, behin, bezero batek karramarro bat utzi zuela hozkailuan, beste aldi batez alkohola kontrola bat ukan zutela.

## **10. Eztei eguna Amikuze aldean (1950 hamarkadan) (BEH-001/010)**

Askaldu ondoan, gomitak autobusez joaiten ziren Herriko Etxeraino. Elgar ezagutzeko parada ere zuten.

## **11. Besta eguneko apairuak Amikuze aldean (1950-60 hamarkadan) (BEH-001/011)**

Eztei edo komunione egunetan, hiru apairuak etxean berean prestatuak ziren. Kozinertsak etxez etxe ibiltzen ziren.

## **12. Ezteietako opariak (1950-60 hamarkadan) (BEH-001/012)**

Eztei egunean, dirua emaiten zen esposeri. Haatik, andere esposak bere ganbara erakusten zuen gomiteri eta bereziki aitzinetik erosiak zituen oihaleria, mihise eta baxerak.

## **13. Pasta berezi bat duten bi errezeta (BEH-001/013)**

« Pommes dauphine » edo lur sagar hantuen eta kauseren errezetak ematen dizkigu Marie-Jeannek. Errezeta hauentzat behar beharrezkoa da « pâte à choux » delakoa.

## **14. Biskotxa errezetak (BEH-001/014)**

Marie-Jeanne Auchoberry-k euskal bixkotxaren eta moka bixkotxaren errezetak ematen ditu

## **15. Beste errezeta zukratuak (BEH-001/015)**

Marie-Jeannek beste 3 errezeta zukratu ematen ditu, horietan ogi galdua eta matahamiena.

## **16. Errezeta gazituak (BEH-001/016)**

Marie-Jeanne Auchoberry-k azaltzen digu nola kozinatzen zituen idi mihia, madère saltsa eta idia saltsan (doba).

## **17. Eskola Behauzen 1930. hamarkadan (BEH-002/001)**

1933a arte, mutiko eta neskek bereiz eskolatzen ziren. Burraso batzuk begi txarrez ikusten zuten mutiko-neskak eskolan elgarrekin ematea. Beste haur

frango bezala, Jeannek eskola 12 urtetan utzi zuen ; urte hortan berean zertifikatua lortu zuen eta komunionea egin.

### **18. Neska gazteak Behauzeko seroretan 1930. hamarkadan (BEH-002/002)**

Eskola bukatu bezain laster, neska gazte batzu segi joaiten ziren. Jeanne bezalako beste batzu seroretan egoiten ziren bizpairu neguz, brodatzen, trikotatzen eta kozinatzen ikasteko. Bazituzten ere artetan atsedenaldi batzu : memento horietan antzerkian aritzen ziren.

### **19. Neska gazteen jokoak (BEH-002/003)**

12-15 urtetako neskak kroketean ari ziren bai eta ere « 31 » deitu karta jokoan. Mutikoez ez zuten bixtandena joko horietan parte hartzen.

### **20. Neska gazteak dendariaren etxean (BEH-002/004)**

Neska gazte askok bizpahiru negu pasatzen zituzten dendariarekin josten ikasten. Peyroutet izeneko dendaria ezaguna zen, Jeanne bezalako dotzena bat neska gazte formatzen zituelako aldi oro.

### **21. Kongregazionea (BEH-002/005)**

Kongregazionen izaiteko eta egoiteko hauxe egin behar zen : besta igandetako mezan elizaintzinean egon mantalina xuria buruan eta uhal urdin bati zintzilikatu medaila urdin bat lepoan, mutikoez ez dantzan aritu. Neska gehienak kongregazionean ziren.

### **22. Ezkongabeko bigote gazte baten harremanak gerla inguruan (BEH-002/006)**

Bigote batzu goizik abiatzen ziren ; Jeannek 15 urtetan ezagutu zuen bere gizongaia (1936an). Garai hartan, gazte ez zuten amodiorako eta sexualitateko nihungo prestakuntzarik. Eta ezkontzaz kanpoko harreman sexualak ez ziren onartuak.

### **23. Bigarren gerlako oroitzapenak (1939-1945) (BEH-002/007)**

Gerla denborako bizi baldintzak ez ziren denentzat berdinak. Jeanne oroitzen da Behauzen ez zutela janari eskasik (etxeke xerria bazuten, ogia, gurina). Alemanak pasatzen ziren etxetan janari keta (arraultzeak bereziki).

### **24. Amatasuna 1940-1950 urteetan (BEH-002/008)**

Gehienetan (arazo berezirik ez zenean) emaitzak lagundurik ukaiten zen haurra. « Elizan sartzea » deitu ohidura aski zabaldua zen Euskal Herrian barna.

### **25. Laborari emazte baten lanak 1950. hamarkadan (BEH-002/009)**

Laborarisak bere burua barneko (garbiketa, sukaldaritza) eta kanpoko (belar, arto biltze) lanen artean banatu behar zuen. Arto xuritza auzoen arteko lan elgarretaratze alai zen.

## **26. Ogi joitea 1950. hamarkadan (BEH-002/010)**

Ogi joitea auzoen arteko elgarretaratze garrantzitsua zen. Joiteko mekanika 1956an agertu zen. Ogia peiten zen, idortzen ezartzen ezpaletan bildurik eta ondotik joiten. Lehen denboretan joitea ganerretik hurbil egiten zen (ezpal guziak aitzinetik sartzen ziren), ondotik pentzean berean eta honek lana errextu zuen.

## **27. Xerri hiltzea (BEH-002/011)**

Xerri lanek bizpairu egun hartzen zuten, xerri hiltzetik tripotak, lukainkak, pateak eta urinekoak egiteraino.

## **28. Bokata (BEH-002/012)**

Bokata untzi handi batean egosarazten zen etxean berean, urean pasatzea aldiz errekan egiten zen. Eskorgetan edo orgaxka batzuetan eramaten ziren xuriketak errekarara.

## **29. Behi hazkuntza (BEH-002/013)**

1950-1960 urteetan, Arberatze Yemenea bezalako etxalde batzu behi hazkuntzan berezituak ziren (Akitaniako blondak), Europan (Ingalaterran) edo Europatik kanpo (Kanadan eta Errusian) saltzeko. Yemeneko Alchourroun-tiarrek parte hartzen zuten ere primetan.

## **30. Berritasunen etorrera (elektrika, ura, telebista) (BEH-002/014)**

Behaizen elektrika 1942-1943an ezarri zuten. Jeannek ponpako ura berantago ezagutu du, Behauze utzi eta Arberatzera arribatu denean, 1950ean.

## **31. Etxetiargoa eta aferma Arberatzen (BEH-002/015)**

Arberatzen 10 laborarietarik 7 etxetiarrak ziren 1950. hamarkadan. Etxeko jaunak ez ziren herrian berian bizi baizik eta, gehienetan, hurbileko (Donapaleu) edo urruneko (Biarritz) hirietan. Etxetiarrek kabalen prezioaren erdia ematen zieten, ogi uztaren erdia, eta 10 arto lerroetarik 4. Ondotik, afermak etxetiargoaren tokia hartu du.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-10*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com